

BALIO-PROPOSAMENA

Gure aplikazioa, finantza ezagutza gutxi duten gazteei edo ekintzaile txikiei, pertsonalizatutako orientazioa eskaintzen die. Finantza pertsonaletan eta negozioetan laguntza emateko helburuarekin sortu dugu, inbertitzen, aurrezten eta aseguruak eta zerbitzu gehiago kontratatzen. Hau da, gure aplikazioak zenbakien eta daturn bidez, erabiltzaileak finantza-ahaleginak egiteko, bere helburuak betetzeko eta segurtasun handian parte hartzen arauak edukitzeko aukera emango die.

Aplikazioaren ezaugarriak:

- **Pertsonalizazio osoa:** Erabiltzailearen beharrak eta helburuak kontuan hartuz, finantza plan pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, hau da, erabiltzailearen premien arabera.
- ***Finantza hezkuntza:** Gazteek finantza heziketa lortzeko baliabideak eskaintzen dira aplikazioan, artikulua eta bideoen bidez eskaintzen ditugu.
- ***Inbertitzeko aholku pertsonalizatuak:** Erabiltzaileak bere inbertitzaile profila duten arren, inbertitzaile aholku pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, beren helburuak lortzeko estrategiak diseinatzeko laguntzen eta akzio edo partaidetzak erosteko edo saltzeko aholkuak eskaintzen dugu.
- **Finantza kontrola eta aurrezkiak:** Aplikazioak, egunero, asteero edo hilean zehar gastatutako diru kantitateak erakustea eta analizatzea ahalbidetzen du, baita aurrezte kontuak sortzeko eta kudeatzeko sistema bat ere eskaintzen du.
- **Aseguruak eta zerbitzu finantzarioak:** Erabiltzaileek izango dute aseguruak kontratatzeko eta zerbitzu finantzarioak aurkezteko plataforma bat.
- **Erreserba eta aurrezte kontuak:** Erabiltzaileek aurrezte eta erreserba kontuak sortu eta kudeatzeko aukera izango dute, eta aplikazioak kontuak automatikoki birkalkulatuko ditu.
- **Finantza Komunitatea:** Erabiltzaileek elkarri laguntzeko eta ideiak trukatzeko finantza komunitate bat eratzeko plataforma izango dute, plataforma honetan chat ezberdinak egongo dira topiko ezberdinei buruz hitz egiteko, horrela komunitate indar bat eraikitzen saiatuko genuke.
- **Notifikazioak eta Eguneratzeak:** Erabiltzaileei beren finantza-egoeraren berri izateko eta aplikazioaren eguneratzeak ezagutzeko notifikazioak bidaliko ditugu.
- **Segurtasun Lehentasuna:** Gure aplikazioa segurua da, datu pertsonalak babesteko eta tranzakzio finantzarioak seguruan egiteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuko ditugu.
- **Grafikoak eta Estatistikak:** Erabiltzaileei beren finantza-portafolioak ikusteko grafikoak eta estatistikak eskainiko diegu. Inbertsioen jardueren irudi zehatza emango die, eta erabiltzaileak beren finantza-eboluzioa argi ikus dezakete.

- ***Zerga-Kredituak eta Planifikazioa:** zergak ordaintzeko eta zergak planifikatzeko sistema eskainiko dugu. Adibidez, zerga ordaintzeko ordutegia, kalkuluak, eta kreditu-sarrerak antolatzeko.

“*” duten funtzioak harpidetz premiun-a ordaintzean desblokeatzen dira.